

## **BALIO PROPOSAMENA:**

1. Ikasleek haien ikasketak nola jarraitu hauta dezaketen, aholkularitza jasotzeko espazioa eta ziurgabetasunik ateratzeko. Horrela, denborari, ikasten jarritako ahaleginari eta honetan inbertitutako diruari eraginkortasun edo produktibitate handiagoa ateratzea, okerreko lan ibilbide batean baliabideak alferrik erabiltzearen arriskua murriztuz.

**Betetzen duen beharra:** Gazteei beren trebetasun, gaitasun, nahien eta lan irteren araberrako karrera edo goi mailako zikloa aukeratzeko laguntzea. Gaur egun, gazte gehienek ez dakite zer egin batxilergoa edo lanbide-heziketa ikasi ondoren, edo zer motatako batxilergoa hartu ezta ere. Gure app-arekin, hartu beharreko bide bat markatuko genieke eta ziurgabetasunetik aterako genituzke.

**Zergatik?** Batxilergoko bigarren maila egiten ari naiz, eta, egia esan, nahiko estresagarria izaten ari da. Gogoan dut iaz nire lagunak oso urduri ikusi nituela, eta niri ez zitzaidala inoiz pasatu. Badakit hori egin dezakedala, baina orain pixka bat aldapan gora egiten ari zait.

Gainera mundu guztiak galdetzen dit ea zer ikasi nahi dudana, eta ez dakit nola esan ez dakidala!!

Batxilergoko irteera ohikoenetarikoa bat unibertsitateko karrera bat ikastea da. Hori dela eta, ikasle askok beren etorkizun profesionala derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokora bideratu nahi dute. Ildo horretan, Batxilergoko modalitateak lehen urratsa dira aurrera norantz egin nahi dugun erabakitzeke. Erabaki hori atzeratzea ez bada ere, ikasle asko beldur dira aukeratzeko orduan huts egingo ote duten. Normalean, kontuan hartu beharreko irizpide nagusia ikasi nahi dugun gradua da. Baina, zer gertatzen da argi ez badugu? Eta bi ikasturte hauetan iritziz aldatzen badugu? Edonola ere, hezkuntza-orientabide on batek errazago jartzen du. Erratzeko arriskua hor dago, egia da, baina zenbat eta seguruago sentitu orduan eta aukera gehiago izango dugu asmatzeko.

**Zer aurkitu dezakegu?** Aplikazio honetan gazteei aukera guztien artean aukeratzeko laguntzen diegu. Zientziak, letrak, artistikoa, teknologikoa eta abar izan daitezke. Horretaz gain, aukera horiei guztiei buruzko informazioa jasoko dute ikasketak horiekin harreman zuzena duten edo izan duten pertsonen eskutik, hala nola irakasleak, ikasleak edo beste aditu batzuk. Honek bereizten du gure app-a ikastetxeetan eskaintzen den orientazio zerbitzutik.